

AMURRIKO

56. AURRESKU ETA FANDANGO ETA ARIN ARIN TXAPELKETAKO OINARRIAK

ABUZTUAK 16 | 12:30 | SAN ROKEko basilizan | AMURRIO

Antolatzailea: Aiara Dantza Taldea

OINARRI OROKORRAK: Dantzariak probak hasi baino 30 minutu lehenago egon beharko dute bertan. Lehenik aurrekulariak arituko dira eta ondoren fandango eta arin-arineko bikoteak. Txapelketa bakoitza hasi aurretik soinu proba egingo da. Proba bietan derrigorrezkoa izango da arropa tradizionala erabiltzea. Ez da adin ezberdinetako mailarik egongo, ezta inolako adin mugarik ere.

AURRESKUA: Uriko aurreskuaren doinuz arituko dira, txistulariek jota eta orden honetan: desafioa, eskuz eskukoa, zortzikoa eta kontrapasa. Aurreskuan, ohiko sariez gain, Aiaraldeko aurresku onena ere sarituko da, Aiaraldea Aiara, Amurrio, Artziniaga, Laudio eta Okondo izanik.

FANDANGO ETA ARIN-ARINA: 7 bueltakoak izango dira bai fandangoa eta baita arin arina ere; txistu, trikitixa edo alboka eta panderoz jota.

PARTEHARTZAILE KOPURUA: Txapelketa aurrera eraman ahal izateko, gutxienez 4 aurrekulari eta sueltoko 4 bikotek eman beharko dute izena. Gehienez ordea, 10 aurrekulari eta 6 fandango eta arin-arin bikote izango da onartuko den parte-hartzaile kopururik handiena.

IZENA EMATEA: Uztailaren 15etik abuztuaren 5era arte izango da izena emateko epea. Izena ematen duten lehenengoek hartuko dute parte, Aiaraldearek lehenetsuna izanik (Aiara, Okondo, Amurrio, Artziniaga eta Laudio). Izena ematea googleko inprimaki baten bidez egingo da Aiara Dantza Taldearen webgunean. Parte hartzaileen behin betiko zerrenda e-mail bidez zabalduko da, abuztuaren 12a baino lehen.

EPAIMAHAIA: Zenbait dantzari eta dantzari ohiek osatuko dute. **PUNTUAKETA:** 0-10 puntu bitartean baloratuko da, dantzaren alderdi hauek aintzat hartuta: erritmoa, sinkronia, zailtasuna eta janzkera. **EPAIA:** Epailerek emandako puntuaketen batuketaren bitartez emango da soluzioa, hau apelaezina izango delarik. Lehenengo 3 postuen artean berdinketarik balego, berdinduek proba errepikatu beharko lukete. Puntuaketa mantenduko da, eta epailerek dantzari baten edo bestearen artean aukeratu beharko dute. **SARI-BANAKETA:** Epaimahailak bere epaia eman eta gero egingo da.

SARIAK:

AURRESKUA

- saria: 150€, oroigarria eta txapela
- saria: 120€ eta oroigarria
- saria: 90€ eta oroigarria

Aiarako aurrekulari onenari saria: 75€ eta oroigarria

FANDANGO ETA ARIN-ARINA

- saria: 180€, oroigarria, txapela eta zapia
- saria: 150€ eta oroigarria
- saria: 120€ eta oroigarria

**Gainontzeko parte hartzaileek 30€ dieta jasoko dute. Dieta bakarra izango da nahiz eta bi txapelketetan parte hartu.*